HITZARMENA, SANTURTZIKO UDALAK ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK 2024., 2025., 2026. ETA 2027. URTEETARAKO SINATUA, BILBO ETA SANTURTZIKO SAN JUAN AUZOAREN ARTEKO BIDAIARIEN GARRAIO ZERBITZU PUBLIKOA, ERABILERA OROKORREKO ERREPIDEZ EGITEN DENA, LUZATZEKO ETA ZERBITZU HORREN OHIKO DEFIZITA KONPENTSATZEKO

CONVENIO PARA LA AMPLIACIÓN DE LA PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS Y LA COMPENSACIÓN DEL DÉFICIT EN EL TRANSPORTE PÚBLICO REGULAR DE PERSONAS VIAJERAS POR CARRETERA DE USO GENERAL ENTRE BILBAO Y EL BARRIO DE SAN JUAN DE SANTURTZI SUSCRITO POR EL AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA PARA LOS AÑOS 2024, 2025, 2026 Y 2027,

BILDU DIRA

Alde batetik, KARMELE TUBILLA ARTETXE andrea, SANTURTZIKO UDALEKO alkatea.

Bestetik, SONIA PEREZ EZQUERRA andrea, BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko foru diputatua.

REUNIDAS

De una parte, Dña. KARMELE TUBILLA ARTETXE, Alcaldesa del Excmo. AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI.

Y de otra parte, Dña. SONIA PÉREZ EZQUERRA, Diputada Foral de Transportes, Movilidad y Turismo de la Excma. DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

HONELA JARDUN DUTE

Lehenengoak SANTURTZIKO UDALAren ordezkari gisa, alkatea den aldetik.

Bigarrenak, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saileko foru diputatu gisa, eta ekitaldi honetarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa. Horretarako, Foru Gobernuaren Kontseiluak ahalmena du aldez aurretik, 2024ko apirilaren 18an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

INTERVIENEN

La primera, en calidad de Alcaldesa y en representación del Excmo. AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI.

La segunda, como Diputada Foral del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo, y para el presente acto en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, para lo cual se encuentra previamente facultada por acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral en la sesión celebrada el día 18 de abril de 2024.

Esku hartzen dutenek dokumentu hau eskuesteko behar den legezko gaitasuna onartzen diote elkarri eta honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

LEHENENGOA.- EAEko Errepideko Bidaiari Garraioaren martxoaren 18ko 4/2004 Legean ezarritako eskumen-araubidearen arabera, herri barrukoak dira oso-osorik udalerri beraren barruan egiten diren garraioak; gainerako garraioak, berriz, herri arteko garraiotzat jotzen dira.

Beraz, SANTURTZIKO UDALAK bidaiarien garraio erregularra arautzeko eskumena dauka, Bizkaiko lurraldearen barruko erabilera orokorreko bidaiarien garraio iraunkorreko zerbitzuaren emakidak emanez.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAk bidaiarien garraio erregularra arautzeko eskumena dauka, Bizkaiko lurraldearen barruko herrien arteko erabilera orokorreko bidaiarien garraio iraunkorreko zerbitzuaren emakidak emanez.

BIGARRENA.- Bai Bizkaiko Foru Aldundiak, bai SANTURTZIKO UDALAK badakite ez dela nahikoa esleituta dauzkaten eskumenak erabiltzea eta, aurrera eginda, herritarrei errepidezko garraio-zerbitzu erregularra eskaini behar zaiela.

Las intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal suficiente para otorgar el presente documento y a tal efecto

EXPONEN

PRIMERO.- De acuerdo al régimen competencial establecido en la Ley 4/2004, de 18 de marzo, de Transporte de Personas viajeras por Carretera del País Vasco, son urbanos los transporte públicos que transcurren íntegramente dentro del mismo término municipal, teniendo el resto de los transportes la consideración de transporte interurbano.

Por tanto, el AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI, ostenta la competencia para ordenar el transporte regular de personas viajeras mediante el otorgamiento de concesiones de servicio regular de transporte permanente de personas viajeras de uso general que tengan su recorrido dentro de su territorio.

Y la DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA ostenta la competencia para ordenar el transporte regular de personas viajeras mediante el otorgamiento de concesiones de servicio regular interurbano de transporte permanente de personas viajeras de uso general que tengan toda o la mayor parte de su recorrido dentro de su territorio.

SEGUNDO.- Tanto la Diputación Foral de Bizkaia como el AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI son conscientes de la necesidad de ofrecer, más allá del mero ejercicio de las competencias que cada institución tenga atribuidas, un servicio de transporte público regular de personas viajeras por carretera que pueda satisfacer las demandas de las personas usuarias.

HIRUGARRENA.- EZKERRALDEA-MEATZALDEA erabilera orokorreko bidaiarien garraio-zerbitzu erregularraren emakidako lineetako bat A3136 Bilbo-Barakaldo-Santurtzi izenekoa da.

Linea horren maiztasuna 30 minutukoa da. Ibilbidea Santurtziko San Juan auzotegiraino iristen da 60 minutuko maiztasunarekin.

SANTURTZIKO UDALAK San Juan auzoko herritarren aldarrikapenak aintzat hartu ditu eta linearen maiztasuna San Juan auzoan ere 30 minutukoa izatea nahi du.

LAUGARRENA.- 2014ko abenduaren 3an SANTURTZIKO UDALAK eta Bizkaiko Foru Aldundiak lehen hitzarmena sinatu zuten Bilbo eta Santurtzi (San Juan auzoraino) arteko bidaiarien garraio-zerbitzu publikoaren maiztasuna gehitzeko Bizkaibusen A3136 Bilbao-Barakaldo-Santurtzi linearen bidez. Hitzarmen haren indarraldia 2015eko abenduaren 31ra artekoa zen.

Hitzarmena urtez urte luzatu zen harik eta onetsitako azkena 2019ko abenduaren 31n amaitu arte. Luzatzeaz gainera, aldatu ere egin zen Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuak ezartzen duen erregulazio berrira egokitzeko.

BOSTGARRENA.- Aurreko hitzarmenaren indarraldia amaitu ondoren, 2020ko urtarrilaren 28an, SANTURTZIKO UDALAK eta Bizkaiko Foru Aldundiak Hitzarmen berri bat sinatu zuten Bilbo eta Santurtziko San Juan auzoaren arteko bidaiarien garraio zerbitzu publikoa, erabilera orokorreko errepidez egiten dena, luzatzeko eta

TERCERO.- La concesión del servicio público de transporte de personas viajeras, regular y de uso general EZKERRALDEA- MEATZALDEA contempla entre las líneas que la conforman, la denominada A3136 Bilbao- Barakaldo- Santurtzi.

La frecuencia de esta línea es de 30 minutos, prolongando su recorrido hasta el barrio San Juan de Santurtzi con una frecuencia de 60 minutos.

El AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI haciéndose eco de las reivindicaciones de los vecinos del Barrio San Juan, está interesado en que la frecuencia de la citada línea sea también de 30 minutos hasta el barrio San Juan.

CUARTO.- Con fecha 3 de diciembre de 2014 se suscribió entre el AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI y la Diputación Foral de Bizkaia el primer Convenio para la ampliación de la frecuencia horaria de la prestación de los servicios de transporte público de personas viajeras entre Bilbao y Santurtzi, hasta el Barrio de San Juan, mediante la línea de Bizkaibus A3136 Bilbao-Barakaldo-Santurtzi, cuya vigencia finalizaba el 31 de diciembre de 2015.

El citado Convenio fue objeto de prórrogas anuales, finalizando la vigencia de la última prórroga aprobada, el 31 de diciembre de 2019. Asimismo, fue modificado con objeto de adaptarlo a la nueva regulación establecida en el Real Decreto 55/2017, de 3 de febrero, por el que se desarrolla la Ley 2/2015, de 30 de marzo, de desindexación de la economía española.

QUINTO.- Vencida la vigencia del Convenio anterior, con fecha 28 de enero de 2020 se suscribió entre el AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI y la Diputación Foral de Bizkaia un nuevo Convenio para la ampliación de la prestación de los servicios y la compensación del déficit en el transporte público regular de personas viajeras por carretera de uso

zerbitzu horren ohiko defizita konpentsatzeko. Hitzarmen horren indarraldia 2023ko abenduaren 31n amaitu zen.

general entre Bilbao y el barrio de San Juan de Santurtzi, cuya vigencia finalizaba el 31 de diciembre de 2023.

Lehen hitzarmena abian ipini zuten beharrizanak oraindik ere badaudenez gero, eta Sektore publikoaren araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezartzen duen hitzarmenen araubide juridikoarekin bat etorriz, indarrean dagoen legeriara egokitutako hitzarmen berria sinatuko da, beharrizan horiek asetzeko 2024-2027 aldian.

Dado que subsisten las necesidades que fueron objeto del convenio inicial y, de acuerdo con lo establecido en el régimen jurídico de los convenios regulado por la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, procede suscribir un nuevo Convenio que se acomode a la legislación actualmente vigente y que dé respuesta a las necesidades mencionadas durante el periodo 2024-2027.

Hitzarmen hau Sektore publikoko kontratuei buruzko 9/2017 Legearen eremutik kanpo dago, 6. artikuluko lehen idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

El presente convenio está excluido de la Ley 9/2017, de Contratos de Sector Público, en virtud de lo recogido en el apartado primero del artículo 6.

Onesteko proposatzen den hitzarmena administrazio artekoa da, 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluan aipatzen diren horietakoa.

El convenio cuya aprobación se propone es un convenio interadministrativo recogido en el artículo 47.2.a) de la Ley 40/2015.

Horregatik, hitzarmena sinatzen duten administrazioek, dauzkaten eskuduntzen eta eskumenen babesean, hitzarmen hau sinatzea erabaki dute.

Por ello, en virtud de las atribuciones y competencias que les corresponden, las Administraciones firmantes han resuelto suscribir el presente convenio con arreglo a las siguientes

## KLAUSULAK

## CLAÚSULAS

### 1. Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da Bilbo eta Santurtzi (XVIII. mendea parkeko geralekutik San Juan auzora) arteko bidaiarien garraio-zerbitzu publikoaren maiztasuna gehitzea Bizkaibusen A3136 Bilbo-Barakaldo-Santurtzi linearen bidez, batetik, eta Santurtziko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak honek egiten duen zerbitzuaren kostuari aurre egiteko zenbateko diru-ekarpena egin beharko duten ezartzea, bestetik.

### 1. Objeto del convenio

El presente convenio tiene por objeto acordar la ampliación de la frecuencia horaria de la prestación del servicio de transporte público de personas viajeras entre Bilbao y Santurtzi, desde la parada Parque (S. XVIII) hasta el barrio de San Juan, mediante la línea de Bizkaibus A3136 Bilbao-Barakaldo-Santurtzi, y establecer la aportación económica correspondiente al Ayuntamiento de Santurtzi y a la Diputación Foral de Bizkaia, por la prestación por esta última del citado servicio.

Hitzarmen honetan arautzen den zerbitzua I. eranskinean azaltzen da. Linea hau EZKERRALDEA-MEATZALDEA emakidaren barruan dago.

La prestación del servicio acordada en el presente convenio viene determinada en el Anexo I. Se incluye esta línea en la concesión denominada EZKERRALDEA- MEATZALDEA.

2. Alderdiek beren gain hartzen dituzten betebehar eta konpromiso ekonomikoak.

2. Obligaciones y compromisos económicos asumidos por las partes.

Zerbitzuen prestazioa zabaltzeak dakarren kostu ekonomikoa SANTURTZIKO UDALAK ordainduko du.

El coste económico que conlleva la ampliación de la prestación de los servicios será sufragado por el AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI.

Kostua zenbatekoa den zehazteko A3136 lineak 2024-2027 aldian edukiko duen defizita zenbatetsi da, pentsatu baita horixe dela irizpiderik egokiena, Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuak ezartzen duenaren arabera.

Dicho coste se determina realizando la estimación del déficit de la línea A3136 para los ejercicios 2024-2027, por considerarse el criterio más conveniente conforme al Real Decreto 55/2017, de 3 de febrero, por el que se desarrolla la Ley 2/2015, de 30 de marzo, de desindexación de la economía española.

A3136 Bilbo-Barakaldo-Santurtzi linea indartzeak eragingo lukeen defizita Ezkerraldea-Meatzaldea emakidaren preskripzio teknikoetan ezartzen denarekin bat etorriz kalkulatuko da. Hau da, hizpide dugun zerbitzurako ezarrita dauden kilometro teorikoak oinarritzat hartu eta kopuru horri Gobernu Kontseiluak erabaki bidez onetsitako indarreko kilometroko prezioa aplikatu zaio eragiketaren kostua kalkulatzeko.

El cálculo del déficit que supone la propuesta de reforzar la línea A3136 Bilbao- Barakaldo- Santurtzi, se calculará de conformidad con lo establecido en el pliego de prescripciones técnicas de la Concesión Ezkerraldea- Meatzaldea. Esto es, partiendo de los kilómetros teóricos que se establecen para la prestación del servicio de referencia, a los que se aplica el precio por kilómetro recorrido vigente aprobado mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno, se calcula el coste de operación.

Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartuko ditu inbertsio-kostu guztiak, emakidaren pleguetan ezartzen denaren arabera; hau da, Aldundiak bere gain hartuko ditu inbertsioen amortizazio teknikoa (ibilgailuak, ULS, monetika, txartelak), inbertsio horiek finantzatzearen kostuak eta ibilgailuen aseguruen kostua.

La Diputación Foral de Bizkaia asume todos los costes de inversión en los términos recogidos en el pliego de la concesión, esto es, la amortización técnica de las inversiones (vehículos, SAE, monética y billetaje), costes de financiación de estas inversiones, así como el coste de los seguros de los vehículos.

Hitzarmen honen xede diren zerbitzuekin biltzen den diru guztia emakidaren guztirako bilketaren barruan sartuko da, pleguetan ezartzen den bezala.

La totalidad de la recaudación de los servicios objeto de este convenio se entenderá que forma parte de la recaudación global de la concesión, en los términos establecidos en el pliego.

Aurrekoa gorabehera, A3136 linean hitzarmen honetan adierazitakoaren arabera 6erbitzuak emateko bitartekoak gehitu beharrak Santurtziko Udalak egin behar duen ekarpena berriro kalkulatzea eragingo du, pleguetan ezarrita dagoen moduan.

A3136 linea Bizkaibus zerbitzuko Ezkerraldea-Meatzaldea emakidaren barruan dago. Horrenbestez, Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzua ematen duen sozietate kudeatzaileari kilometro bakoitzeko ordaintzen dion prezioa eta horren eguneraketa ordaintzeko, lehiaketa adjudikatzeko oinarri gisa erabili ziren baldintza-agirietan xedatuta dagoenari jarraituko zaio.

Horregatik, aurrean azaldutakoarekin eta II. Eranskineko memoria ekonomikoan azaltzen denarekin bat etorriz, alderdiek adosten dute SANTURTZIKO UDALAK honako kopuru hauek ordaindu beharko dizkiola EZKERRALDEA-MEATZALDEA BUS SA emakidaren kudeatzaileari:

- 2024. Urtean ordaindu beharreko zenbatekoa 97.760,03 € izango da.
- 2025. Urtean ordaindu beharreko zenbatekoa 100.413,51 € izango da.
- 2026. Urtean ordaindu beharreko zenbatekoa 103.425,92 € izango da.
- 2027. Urtean ordaindu beharreko zenbatekoa 106.528,70 € izango da.

Hitzarmenaren indarraldiko urte bakoitzeko ordainketak apirilaren 1etik maiatzaren 30era bitartean egin beharko ditu SANTURTZIKO UDALAk. Hau da, 2024. Urteko ordainketa 2024ko apirilaren 1etik maiatzaren 30rra bitartean egin beharko du.

No obstante lo anterior, la necesidad de incrementar los medios para la prestación de los servicios en la línea A3136 de acuerdo a lo expuesto en el presente Convenio, conllevará el recalculo de la aportación a realizar por el Ayuntamiento de Santurtzi, en los términos establecidos en el pliego.

Dado que la línea A3136 se configura como una línea de la concesión denominada Ezkerraldea-Meatzaldea del Servicio Bizkaibus, el precio kilómetro que se abona a la sociedad gestora prestataria del servicio por parte de la Diputación Foral de Bizkaia y su actualización deben realizarse de acuerdo a lo dispuesto en el pliego que sirvió de base para la adjudicación del concurso.

Es por ello que, de conformidad con lo expuesto anteriormente y detallado en la Memoria Económica que se adjunta como Anexo II, se acuerda establecer las siguientes cantidades anuales a abonar por el AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI a la sociedad gestora de la concesión EZKERRALDEA-MEATZALDEA BUS, S.A.:

- Para el año 2024, la suma a abonar asciende a la cantidad de 97.760,03 €.
- Para el año 2025, la suma a abonar asciende a la cantidad de 100.413,51 €.
- Para el año 2026, la suma a abonar asciende a la cantidad de 103.425,92 €.
- Para el año 2027, la suma a abonar asciende a la cantidad de 106.528,70 €.

El abono correspondiente a cada uno de los años de duración del convenio se realizará por parte del AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI entre los días 1 de abril y 30 de mayo. Esto es, el abono correspondiente año 2024 se realizará entre los días 1 de abril y 30 de mayo de 2024.

Es obligación del ayuntamiento de Santurtzi justificar ante la Diputación Foral de Bizkaia la

Bestalde, Santurtziko Udalak urteko ordainketa egin izanaren justifikazioa igorri beharko dio Bizkaiko Foru Aldundiari ordainketa egiten duenetik hilabeteko epean.

Hitzarmen hau luzatzea adosten bada, luzapeneko urte bakoitzeko zenbatekoa luzapenaren akordioan ezarriko da hitzarmenaren xede den linearen defizitaren arabera, luzapenaren memoria ekonomikoan ezartzen dena aintzat hartuta.

realización del abono de dichas cantidades en el plazo de un mes a partir de la realización del mismo.

En caso de que se acuerde una prórroga del presente convenio, el importe anual por cada uno de los años que se fije en dicha prórroga se determinará en el acuerdo de prórroga correspondiente en función del cálculo del déficit de la línea objeto de este convenio según se establezca en la correspondiente memoria económica de la prórroga que se adjunte a la misma.

3. Alderdiek beren gain hartzen dituzten betebehar eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak.

Hitzarmen hau sinatzen duten alderdietako batek bere gain hartzen dituen betebeharrak eta konpromisoak ez baditu betetzen, hitzarmena suntsituko da eta ordura arte hartutako betebeharren likidazio ekonomiko eta administratiboa egingo da.

3. Consecuencias por incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidas por las partes

El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes y recogidos en la cláusula anterior será causa de resolución del presente convenio. La resolución del convenio dará lugar a la liquidación económica y administrativa de las obligaciones contraídas hasta ese momento en los términos previstos en la cláusula 8ª del presente convenio.

4. Hitzarmena eta hartutako konpromisoak nola betetzen diren jarraitzeko, egiaztatzeko eta kontrolatzeko mekanismoak.

4.1. Jarraipen eta Kontrol Batzordea

Jarraipen eta Kontrol Batzordean bina ordezkari edukiko ditu hitzarmena sinatzen duen erakunde bakoitzak. Batzordeak bitartekari modura jardungo du alderdi sinatzaileen arteko lankidetza bideratzen eta hitzarmenaren xedea egitean sortzen diren interpretazio-arazoak konpontzen eta konpromisoak betetzen direnez kontrolatzen.

Honako hauek ariko dira Batzordean:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, Garraio zuzendari nagusiak edo beraren ordez eginkizun hori beteko duen pertsonak (batzordeburua izango da) eta Garraio

4. Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos.

4.1. Comisión de Seguimiento y Control

La Comisión de Seguimiento y Control, compuesta a partes iguales por dos representantes de cada institución firmante, será el cauce para la cooperación entre las partes firmantes y para la resolución de los problemas de interpretación y seguimiento y control de la ejecución del convenio y del cumplimiento de los compromisos asumidos.

La composición de la comisión será la siguiente:

- Por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, integrarán dicha Comisión el/la directora/a General de Transportes o persona que le supla en el ejercicio de esta función, que ejercerá las

zuzendariorde nagusiak edo beraren ordez eginkizun hori beteko duen pertsonak.

funciones de presidencia, y el/la Subdirector/a General de Transportes o persona que le supla en el ejercicio de esta función.

- SANTURTZIKO UDALAren aldetik, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi ordezkaria eta Hirigintza eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria edo haien ordez eginkizun horiek beteko dituzten pertsonak.

- Por parte del AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI, integrarán dicha Comisión el Concejal Delegado de Obras y Servicios y la Concejala Delegada de Urbanismo y Medio Ambiente o las personas que les suplan en el ejercicio de estas funciones.

Batzordea batzordeburuak deialdia egiten duen bakoitzean bilduko da, alderdi batek eskatuta.

La comisión se reunirá cada vez que sea convocada por la presidencia, a petición de cualquiera de las partes.

Erabakiak aho batez hartuko dira.

Los acuerdos se adoptarán por unanimidad.

Hitzarmenaren indarraldia amaitutakoan Batzordeak hitzartutako jarduketak egin direla egiaztatzeko akta egingo du.

Será responsabilidad de la comisión la elaboración de la pertinente acta de comprobación de las actuaciones acordadas a la finalización de la vigencia del convenio.

4.2. Zerbitzuaren aldizkako jarraipenaren kontrola

4.2. Control del seguimiento periódico del servicio

Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzuaren aldizkako jarraipena egingo du Nerbioi-Arratia-Durangaldea emakidaren preskripzio teknikoen pleguan xedatutakoa betez, hitzarmenaren egikaritzea behar bezala kontrolatzen dela bermatzeko.

La Diputación Foral de Bizkaia hará el seguimiento periódico del servicio de conformidad con lo establecido en el pliego de prescripciones técnicas de la Concesión Nerbioi-Arratia-Durangaldea, que garantice el control efectivo de la ejecución del convenio.

5. Hitzarmena aldatzeko araubidea.

5. Régimen de modificación del convenio

Alde sinatzaileek aho batez hartutako erabakia beharko da, baita dagokion espedientea aldez aurretik hitzartuta egotea ere, hitzarmena aldatzeko.

La modificación del convenio requerirá acuerdo unánime de las partes firmantes y la previa tramitación del correspondiente expediente.

Espediente horretan, nahitaez egin beharko da justifikazio-txosten tekniko bat, zeinean aztertuko baitira hitzarmenaren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015

En el mencionado expediente, necesariamente deberá emitirse informe técnico justificativo en el que se analice sus necesidad y oportunidad, su impacto económico y el cumplimiento de lo previsto

Legean edo hura ordezten duen arauan aurreikusitakoa betetzea.

en la Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del sector público, o norma que le sustituya.

6. Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen honen indarraldia 2024ko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 2027ko abenduaren 31n amaituko da.

Hitzarmen hau behin baino ez da berariaz luzatu ahalko. Luzapen hori ezin izango da lau urte baino gehiagokoa izan. Nolanahi ere, hitzarmena iraungi egingo da EZKERRALDEA-MEATZALDEA izeneko egungo emakida eta horren balizko luzapenak amaitzen direnean.

Luzapen bakarra aplikatuko bada, ezinbestekoa izango da hitzarmena eragin duten inguruabarrek bere horretan jarraitzea; gainera, alderdiek hitzarmena salatu dezakete indarraldia amaitu baino bi hilabete lehenago.

6. Plazo de vigencia del convenio

El presente convenio entrará en vigor el 1 de enero de 2024 y extenderá su vigencia hasta el 31 de diciembre de 2027.

El Convenio podrá prorrogarse de manera expresa por una sola vez y por un periodo determinado no superior a 4 años. En cualquier caso, el convenio se extinguirá con la finalización de la concesión actual denominada EZKERRALDEA-MEATZALDEA y sus posibles prórrogas.

Procederá acordar esta única prórroga siempre que subsistan las mismas circunstancias que dieron origen a la implantación de este convenio y salvo denuncia expresa de las partes manifestada con dos meses de antelación a la fecha de finalización de vigencia del convenio.

7. Hitzarmena azkentzea.

Hitzarmen hau xede dituen jarduketak ez betetzeagatik edo azkentzeko arrazoiren batengatik azkenduko da.

Azkentzeko arrazoiak dira:

- Indarraldia amaitzea hitzarmena luzatzeko erabakirik hartu gabe.
- Alderdiek aho batez erabakitzea.
- Alderdi batek bere gain hartutako betebehar eta konpromisoak ez betetzea.
- Epaile batek erabakitzea hitzarmena deuseza dela.
- Zerbitzu publikoak kudeatzeko egungo kontratua edo haren luzapenak amaitzea.
- Legean ezarritako gainerako arrazoi guztiak.

7. Extinción del convenio

El presente convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en causa de resolución.

Serán causas de resolución:

- El transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- El acuerdo unánime de todas las partes.
- El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguna de las partes.
- Por decisión judicial declaratoria de nulidad.
- Por la finalización del actual contrato de gestión de servicio público o sus prórrogas
- Por cualquier otra causa prevista en las leyes.

8. Hitzarmena azkentzearen ondorioak.

Hitzarmena azkenduz gero, likidazioa egingo da, alderdi bakoitzak bere betebeharrak eta konpromisoak bete dituenez aztertzeko.

Hala ere, hitzarmena azkentzeko arrazoietako bat dagoenean betearazteko jarduerak badaude, aldeek, hitzarmenaren Jarraipen eta Kontrol Batzordeak proposatuta, erabaki ahal izango dute egiten ari diren jarduerekin jarraitu edo ez, eta egokitzat jotzen dituzten jarduketak burutu. Horretarako, luzatu ezin den hiru hilabeteko epea ezarriko dute, eta hori igarotakoan, jarduerei dagokien likidazioa egin beharko da hitzarmen honetan zehaztutako baldintzetan.

8. Efectos de la resolución del convenio

Resuelto en convenio, se llevará a cabo su liquidación con el objeto de determinar el cumplimiento de las obligaciones y compromisos de cada una de las partes.

Si cuando concurra cualquiera de las causas de resolución del convenio existen actuaciones en curso de ejecución, las partes, a propuesta de la Comisión de Seguimiento y Control, podrán acordar la continuación y finalización de las actuaciones en curso que consideren oportunas, estableciendo un plazo improrrogable de tres meses para su finalización, transcurrido el cual, deberá realizarse su liquidación en los términos establecidos en el presente convenio.

9. Alderdiek lagundu beharra.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute Bizkaiko Foru Aldundiak egiten dituen kontrol-lan guztietan laguntzeko, bai hitzarmena kudeatzen duen saileko organoen bidez, bai Ogasun eta Finantza Sailaren kontrol-organoaren bidez.

9. Obligación de colaboración de las partes

Las partes se comprometen a colaborar en las funciones de control que al efecto pudiera llevar a cabo la Diputación Foral de Bizkaia, bien a través de los órganos del Departamento gestor del convenio, bien del órgano de control del Departamento de Hacienda y Finanzas.

10. Datu pertsonalen babesa.

Akordio hau sinatu duten alderdiek hitzematen dute bete egingo dutela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena), hau da, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean, Datu Pertsonalak Babesteari eta

10. Protección de datos de carácter personal

Las partes firmantes se comprometen a cumplir con lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos), en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de

Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta arlo horretan aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoa.

Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y demás normativa aplicable en la materia.

11.-Berdintasuna

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera. alderdi sinatzaileek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko konpromisoa hartzen dute lankidetza-hitzarmen hau behar bezala betetzeko egin behar diren jarduera guztietan.

11.-Igualdad

De acuerdo con la normativa vigente en materia de igualdad de mujeres y hombres. las partes firmantes se comprometen a promover la igualdad de mujeres y hombres en todas aquellas actuaciones que se precisen desarrollar para el adecuado cumplimiento del presente convenio de colaboración.

12. Araubide juridikoa.

Hitzarmen hau administratiboa da, horrela xedatzen baitu Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak Atariko Tituluko VI. kapituluan.

Hitzarmen honetan aurrez ikusten ez diren gai guztietan hauek aplikatu beharko dira: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa; Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, zeinaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten den, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duena, eta aplikatu beharreko gainerako xedapen guztiak.

Jarraipen eta Kontrol Batzordean ebatzi ezin diren auziak administraziorekiko auzien jurisdikzioan ebatziko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatzen duen bezala.

12. Régimen jurídico

Este Convenio tiene carácter administrativo conforme a lo dispuesto en el Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Para todo lo no previsto en el presente convenio será de aplicación la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

La cuestiones que no puedan ser resueltas en la Comisión de Seguimiento y Control se someterán a la jurisdicción contencioso-administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

<u>I.ERANSKINA</u>

Hauek dira Ezkerraldea Meatzaldea emakidunak A3136 linearen bidez emango duen Bilbao eta Santurtziko San Juanen arteko bidaiarien garraio-zerbitzu publikoaren ibilbidea eta ordutegia:

Ibilbidea:

<u>ANEXO I</u>

El itinerario y el horario del servicio de transporte público de personas viajeras entre Bilbao y el Barrio de San Juan en Santurtzi a realizar por Ezkerraldea Meatzaldea mediante la línea A3136 Bilbao-Barakaldo-Santurtzi y que se acuerda en el presente convenio son las siguientes:

Itinerario:

LINEA A3136

| Ibilbidea<br>Ruta | Hurrenkera<br>Orden | Kodea<br>Código | Describapena<br>Descripción | Udalerria<br>Municipio | Aldea<br>Zona |
|---|---|---|---|---|---|
| Parkea/Parque-San juan Joan/ Ida | | | | | |
| | 1 | 48082046 | Parkea/Parque (Siglo XVIII) | SANTURTZI | 2 |
| | 2 | 48082006 | Parkea/Parque (Itsasalde 2) | SANTURTZI | 2 |
| | 3 | 48082020 | Itsasalde 48 | SANTURTZI | 2 |
| | 4 | 48082034 | Mamariga (Plaza) | SANTURTZI | 2 |
| | 5 | 48082041 | Regales 4 | SANTURTZI | 2 |
| | 6 | 48082042 | Regales 32 | SANTURTZI | 2 |
| | 7 | 48082043 | San Juan (bidegurutzea/cruce) | SANTURTZI | 2 |
| | 8 | 48082028 | San Juan | SANTURTZI | 2 |
| Parkea/Parque-San juan Etorri/ Vuelta | | | | | |
| | 1 | 48082028 | San Juan | SANTURTZI | 2 |
| | 2 | 48082038 | San Juan (bidegurutzea/cruce) | SANTURTZI | 2 |
| | 3 | 48082039 | Regales 11-15 | SANTURTZI | 2 |
| | 4 | 48082040 | Mamariga 139 | SANTURTZI | 2 |
| | 5 | 48082030 | Mamariga (Plaza) | SANTURTZI | 2 |
| | 6 | 48082033 | Sabino Arana | SANTURTZI | 2 |

SANTURTZI udala - ayuntamiento

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Ordutegia: Horario:

| LINEA A3136<br>BILBAO- BARAKALDO- SANTURTZI | |
|---|---|
| NONDIK/ SALIDAS DE<br>PARQUE SANTURTZI | NORA/ A<br>Bº SAN JUAN |
| Lanegunetan<br>laborables | 07:00→22:30 |
| Larunbatetan<br>Sábados | 60 min |
| Jaiegunetan | 08:00→22:30 |
| Festivos | 60 min |

| LINEA A3136<br>SANTURTZI- BARAKALDO- BILBAO | |
|---|---|
| | NONDIK/ DE<br>Bº SAN JUAN |
| Lanegunetan<br>laborables | 6:45 07:10→22:10 |
| Larunbatetan<br>Sábados | 60 min |
| Jaiegunetan | 08:10→22:10 |
| Festivos | 60 min |

II. ERANSKINA

SANTURTZIKO UDALAREN ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENAREN MEMORIA EKONOMIKOA; HITZARMEN HORREN BIDEZ BILBO ETA SANTURTZIKO SAN JUAN AUZOAREN ARTEAN BIDAIARIEN ERREPIDEZKO GARRAIO PUBLIKO ERREGULARRAREN ZERBITZUAREN PRESTAZIOA ZABALTZEN DA.

1.- Santurtziko Udalak ordaindu behar duen kostu ekonomikoaren kalkulua

A3136 Bilbo – Barakaldo – Santurtzi linea Parkea (Siglo XVIII) geralekutik San Juan auzoraino 30 minuturo luzatzeko proposamenak linea horren kostu ekonomikoa handitzea dakar.

2024ko, 2025eko, 2026ko eta 2027ko ekitaldietarako kostu hori zehazteko, aipatutako ekitaldietan erreferentziako zerbitzua emateko ezartzen diren kilometro teorikoetatik abiatzen gara. Kilometro teoriko horiek honako hauek dira:

- 2024ko ekitaldia: 16.042,00 km
- 2025eko ekitaldia: 15.997,50 km
- 2026ko ekitaldia: 15.997,50 km
- 2027ko ekitaldia: 15.997,50 km

ANEXO II

MEMORIA ECONÓMICA DEL CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE SANTURTZI Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA PARA AMPLIAR LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE TRANSPORTE PÚBLICO REGULAR DE PERSONAS VIAJERAS POR CARRETERA ENTRE BILBAO Y EL BARRIO DE SAN JUAN DE SANTURTZI.

1.- Cálculo del coste económico a sufragar por el Ayuntamiento de Santurtzi

La propuesta de prolongación de la línea A3136 Bilbao – Barakaldo – Santurtzi desde la parada Parque (Siglo XVIII) hasta el barrio de San Juan cada 30 minutos supone un incremento del coste económico de la citada línea.

Para determinar dicho coste para los ejercicios 2024, 2025, 2026 y 2027, partimos de los kilómetros teóricos que se establecen para la prestación del servicio de referencia en los citados ejercicios y que ascienden a:

- Ejercicio 2024: 16.042,00 km
- Ejercicio 2025: 15.997,50 km
- Ejercicio 2026: 15.997,50 km
- Ejercicio 2027: 15.997,50 km

2024

A3136: 002 SOLO INCREMENTO/GEHITZEA SOILIK Santurtzi-San Juan

Ezkerraldea - Meatzaldea

Expediciones/Espedizioak

| 2024 | Periodo/ Aldia | Tipo Día/Egun mota | Num. Días/ Egun kopurua | Km. Ida/ km. Joanean | Trayec. Ida/Joaneko Ibilbidea | Km. Vta./km. Itzuleran | Trayec. Vta./Itzulerak Ibilbidea | Km. Periodo/km. Aldian |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gabonak (25 -1) | Festivo | 2 | 1,30 | 2,00 | 1,58 | 4,00 | 17,84 |
| | Gabonak (24-31) | Laborable | 2 | 1,30 | 16,00 | 1,58 | 10,00 | 73,20 |
| | Bakarra | Festivo | 63 | 1,30 | 15,00 | 1,58 | 14,00 | 2.622,06 |
| | Bakarra | Laborable | 249 | 1,30 | 16,00 | 1,58 | 15,00 | 11.080,50 |
| | Bakarra | Sabado | 50 | 1,30 | 16,00 | 1,58 | 15,00 | 2.225,00 |
| | | | 366 | | | | | 16.018,60 |

A3136: 004 Parkea/Parque-San juan

Ezkerraldea - Meatzaldea

ExpedicionesEspedizioak

| 2024 | Periodo/Aldia | Tipo Día/Egun mota | Num. Días/Egun kopurua | Km. Ida/km. Joanean | Trayec. Ida/Joaneko Ibilbidea | Km. Vta./km. Itzuleran | Trayec. Vta./Itzulerak Ibilbidea | Km. Periodo/km. Aldian |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gabonak (25 -1) | Festivo | 2 | 1,95 | 6,00 | 0,00 | 0,00 | 23,40 |
| | | | | | | | | 23,40 |

TOTAL Km 2024 16.042,00

2025

A3136: 002 SOLO INCREMENTO/GEHITZEA SOILIK Santurtzi-San Juan

Ezkerraldea - Meatzaldea

Expediciones/Espedizioak

| 2025 | Periodo/Aldia | Tipo Día/Egun mota | Num. Días/Egun kopurua | Km. Ida/km. Joanean | Trayec. Ida/Joaneko Ibilbidea | Km. Vta./km. Itzuleran | Trayec. Vta./Itzulerak Ibilbidea | Km. Periodo/km. Aldian |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gabonak (25 -1) | Festivo | 2 | 1,30 | 2,00 | 1,58 | 4,00 | 17,84 |
| | Gabonak (24-31) | Laborable | 2 | 1,30 | 16,00 | 1,58 | 10,00 | 73,20 |
| | Bakarra | Festivo | 63 | 1,30 | 15,00 | 1,58 | 14,00 | 2.622,06 |
| | Bakarra | Laborable | 248 | 1,30 | 16,00 | 1,58 | 15,00 | 11.036,00 |
| | Bakarra | Sabado | 50 | 1,30 | 16,00 | 1,58 | 15,00 | 2.225,00 |
| | | | 365 | | | | | 15.974,10 |

A3136: 004 Parkea/Parque-San juan

Ezkerraldea - Meatzaldea

ExpedicionesEspedizioak

| 2025 | Periodo/Aldia | Tipo Día/Egun mota | Num. Días/Egun kopurua | Km. Ida/km. Joanean | Trayec. Ida/Joaneko Ibilbidea | Km. Vta./km. Itzuleran | Trayec. Vta./Itzulerak Ibilbidea | Km. Periodo/km. Aldian |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gabonak (25 -1) | Festivo | 2 | 1,95 | 6,00 | 0,00 | 0,00 | 11,70 |
| | | | | | | | | 23,40 |

TOTAL Km 2025 15.997,50

2026

A3136: 002 SOLO INCREMENTO/GEHITZEA SOILIK Santurtzi-San Juan

Ezkerraldea - Meatzaldea

Expediciones/Espedizioak

| 2026 | Periodo/Aldia | Tipo Día/Egun mota | Num. Días/Egun kopurua | Km. Ida/km. Joanean | Trayec. Ida/Joaneko Ibilbidea | Km. Vta./km. Itzuleran | Trayec. Vta./Itzulerak Ibilbidea | Km. Periodo/km. Aldian |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gabonak (25 -1) | Festivo | 2 | 1,30 | 2,00 | 1,58 | 4,00 | 17,84 |
| | Gabonak (24-31) | Laborable | 2 | 1,30 | 16,00 | 1,58 | 10,00 | 73,20 |
| | Bakarra | Festivo | 63 | 1,30 | 15,00 | 1,58 | 14,00 | 2.622,06 |
| | Bakarra | Laborable | 248 | 1,30 | 16,00 | 1,58 | 15,00 | 11.036,00 |
| | Bakarra | Sabado | 50 | 1,30 | 16,00 | 1,58 | 15,00 | 2.225,00 |
| | | | 365 | | | | | 15.974,10 |

A3136: 004 Parkea/Parque-San juan

Ezkerraldea - Meatzaldea

ExpedicionesEspedizioak

| 2026 | Periodo/Aldia | Tipo Día/Egun mota | Num. Días/Egun kopurua | Km. Ida/km. Joanean | Trayec. Ida/Joaneko Ibilbidea | Km. Vta./km. Itzuleran | Trayec. Vta./Itzulerak Ibilbidea | Km. Periodo/km. Aldian |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gabonak (25 -1) | Festivo | 2 | 1,95 | 6,00 | 0,00 | 0,00 | 25,40 |
| | | | | | | | | 23,40 |

TOTAL Km 2026 15.997,50

2027

A3136: 002 SOLO INCREMENTO/GEHITZEA SOILIK Santurtzi-San Juan

Ezkerraldea - Meatzaldea

Expediciones/Espedizioak

| 2027 | Periodo/Aldia | Tipo Día/Egun mota | Num. Días/Egun kopurua | Km. Ida/km. Joanean | Trayec. Ida/Joaneko Ibilbidea | Km. Vta./km. Itzuleran | Trayec. Vta./Itzulerak Ibilbidea | Km. Periodo/km. Aldian |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gabonak (25 -1) | Festivo | 2 | 1,30 | 2,00 | 1,58 | 4,00 | 17,84 |
| | Gabonak (24-31) | Festivo | 2 | 1,30 | 16,00 | 1,58 | 10,00 | 73,20 |
| | Bakarra | Festivo | 63 | 1,30 | 15,00 | 1,58 | 14,00 | 2.622,06 |
| | Bakarra | Laborable | 249 | 1,30 | 16,00 | 1,58 | 15,00 | 11.080,50 |
| | Bakarra | Sabado | 49 | 1,30 | 16,00 | 1,58 | 15,00 | 2.180,50 |
| | | | 365 | | | | | 15.974,10 |

A3136: 004 Parkea/Parque-San juan

Ezkerraldea - Meatzaldea

ExpedicionesEspedizioak

| 2027 | Periodo/Aldia | Tipo Día/Egun mota | Num. Días/Egun kopurua | Km. Ida/km. Joanean | Trayec. Ida/Joaneko Ibilbidea | Km. Vta./km. Itzuleran | Trayec. Vta./Itzulerak Ibilbidea | Km. Periodo/km. Aldian |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gabonak (25 -1) | Festivo | 2 | 1,95 | 6,00 | 0,00 | 0,00 | 23,40 |
| | | | | | | | | 23,40 |

TOTAL Km 2027 15.997,50

2023ko ekitaldariko A3136 linea integratuta dagoen kontseioarako indarrean dagoen kilometro bakoitzeko prezioa , 2023ko urriaren 26ko Gobernu kontseiluaren erabakiaren bidez onartua, 5,91651 eurokoa da.

El precio por kilómetro recorrido vigente para la concesión en la que está integrada la línea A3136 para el ejercicio 2023, aprobado mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno del 26 de octubre de 2023, es de 5,91651 euros.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Ezkerraldea-Meatzaldea sozietate kudeatzailearen arteko kontratuaren urte anitzeko aurrekontuak, kostuen gehikuntza kalkulatzeko urteko %3ko hazkundea hartzen du erreferentziatzat. Ondorioz, 2024-2027 ekitaldietako prezioak honako hauek izango direla kalkulatzen da:

- 2024ko ekitaldia: 6,094005 €
- 2025eko ekitaldia: 6,276825 €
- 2026ko ekitaldia: 6,465130 €
- 2027ko ekitaldia: 6,659084 €

El presupuesto plurianual del contrato entre la Diputación Foral de Bizkaia y la sociedad gestora Ezkerraldea – Meatzaldea Bus, S.A. , toma como referencia para el cálculo del incremento de costes un crecimiento del 3% anual. En consecuencia, se estima que los precios para los ejercicios 2024-2027 son los siguientes:

- Ejercicio 2024: 6,094005 €
- Ejercicio 2025: 6,276825 €
- Ejercicio 2026: 6,465130 €
- Ejercicio 2027: 6,659084 €

Inbertsio-kostuei dagokienez, hau da, ibilgailuen amortizazioa, SAE, monetika eta txartelak, finantzaketa-kostuak eta aseguruak Bizkaiko Foru Aldundiak hartzen ditu bere gain.

En cuanto a los costes de inversión, esto es, la amortización de los vehículos, SAE, monética y billetaje, los costes de financiación y los seguros los asume la Diputación Foral de Bizkaia.

Horregatik guztiagatik, 2024-2027 ekitaldietarako zerbitzuaren kostua honako hau da:

- ZK 2024ko ekitaldia: 97.760,03 €
- ZK 2025eko ekitaldia: 100.413,51 €
- ZK 2026ko ekitaldia: 103.425,92 €
- ZK 2027ko ekitaldia: 106.528,70 €

Por todo ello, el coste del servicio para los ejercicios 2024-2027 asciende a:

- CS ejercicio 2024: 97.760,03 €
- CS ejercicio 2025: 100.413,51 €
- CS ejercicio 2026: 103.425,92 €
- CS ejercicio 2027: 106.528,70 €

Hitzarmen honen xede diren zerbitzuen diru-bilketari dagokionez, ulertzen da Ezkerraldea – Meatzaldea emakidaren bilketa osoaren parte direla.

En cuanto a la recaudación de los servicios objeto de este convenio, se entiende que forman parte de la recaudación global de la concesión, Ezkerraldea – Meatzaldea.

Aurreko hau guztia kontuan hartuta eta defizita diru-bilketa kostu guztiei kenduz kalkulatzen dela kontuan hartuta, A3136 linearen defizit estimatua lortzen da, honako hauen artean:

- Defizita 2024ko ekitaldia: 97.760,03 €
- Defizita 2025eko ekitaldia: 100.413,51 €
- Defizita 2026ko ekitaldia: 103.425,92 €
- Defizita 2027ko ekitaldia: 106.528,70 €

Teniendo en cuenta todo lo anterior y que el déficit se calcula restando la recaudación al total de los costes, se obtiene un déficit estimado de la línea A3136 de:

- Déficit ejercicio 2024: 97.760,03 €
- Déficit ejercicio 2025: 100.413,51 €
- Déficit ejercicio 2026: 103.425,92 €
- Déficit ejercicio 2027: 106.528,70 €

Zerbitzu horiek emateak dakarren kostu u ekonomikoa Santurtziko Udalak ordainduko du.

El coste económico que conlleva la prestación de estos servicios será sufragado por el Ayuntamiento de Santurtzi.

Hitzarmen honetako zerbitzuak ematearen emaitzako zenbateko horiek ere urte bakoitzeko apirilaren 1etik maiatzaren 30era bitartean ordainduko dira.

El abono de las cantidades anteriores que conllevan la prestación de los servicios del presente convenio se efectuará igualmente entre los días 1 de abril y 30 de mayo de cada año.

| CONCEPTO | KM TEÓRICOS | PRECIO | 2024 | 2025 | 2026 | 2027 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| COSTE OPERACIÓN | 16.042,00 | 6,094005 | 97.760,03 | | | |
| | 15.997,50 | 6,276825 | | 100.413,51 | | |
| | 15.997,50 | 6,465130 | | | 103.425,92 | |
| | 15.997,50 | 6,659084 | | | | 106.528,70 |
| COSTE INVERSIÓN | | | - | - | - | - |
| COSTE SERVICIO | | | 97.760,03 | 100.413,51 | 103.425,92 | 106.528,70 |
| RECAUDACIÓN | | | | | | |
| DÉFICIT | | | 97.760,03 | 100.413,51 | 103.425,92 | 106.528,70 |
| AYUNTAMIENTO DE GALDAKAO | | | 97.760,03 | 100.413,51 | 103.425,92 | 106.528,70 |

2.- Kontrol ekonomikoari buruzko txostena eskatzeko memoria

2.- Memoria de solicitud del informe de control económico

Hitzarmenaren proiektuaren xedea da Bizkaibus A3136 linea luzatzea da Parkea (XVIII. mendea) geralekutik San Juan auzoraino 30 minutuan behin 2024., 2025., 2026. Eta 2027. Urteetarako.

El objeto del proyecto del convenio es la prolongación de la línea de Bizkaibus A3136 desde la parada Parque (Siglo XVIII) hasta el barrio San Juan cada 30 minutos para los años 2024, 2025, 2026 y 2027.

EZKERRALDEA-MEATZALDEA erabilera orokorreko bidaiarien garraio-zerbitzu erregularraren emakidako lineetako bat A3136 BILBO-BARAKALDO-SANTURTZI izenekoa da.

La concesión del servicio público de transporte de personas viajeras, regular y de uso general EZKERRALDEA- MEATZALDEA contempla entre las líneas que la conforman, la denominada A3136 BILBAO- BARAKALDO- SANTURTZI.

Linea horren maiztasuna 30 minutukoa da. Ibilbidea Santurtziko San Juan auzotegiraino iristen da 60 minutuko maiztasunarekin.

La frecuencia de esta línea es de 30 minutos, prolongando su recorrido hasta el barrio San Juan de Santurtzi con una frecuencia de 60 minutos.

SANTURTZIko Udalak San Juan auzoko herritarren aldarrikapenak aintzat hartu ditu eta

El Ayuntamiento de SANTURTZI haciéndose eco de las reivindicaciones de los vecinos del

linearen maiztasuna San Juan auzoan ere 30 minutukoa izatea nahi du.

Barrio San Juan, está interesado en que la frecuencia de la citada línea sea también de 30 minutos hasta el barrio San Juan.

Horrexegatik uste dugu beharrezkoa dela zerbitzua zabaltzea.

Es por ello que se considera necesario ampliar el servicio.

Zerbitzu hau emateak dakarren kostu ekonomikoa Santurtziko Udalak ordainduko du guztiz, eta, beraz, ez dago Bizkaiko Foru Aldundiari egozteko moduko kosturik.

El coste económico que conlleva la prestación de este servicio será sufragado en su totalidad por el Ayuntamiento de Santurtzi por lo que no existe coste imputable a la Diputación Foral de Bizkaia.

Proposatutako zerbitzua Santurtziko diru-ekarpenen bidez bakarrik finantzatuko da.

La realización del servicio propuesto únicamente se va a financiar con las aportación a realizar por el Ayuntamiento de Santurtzi.